ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko uztailaren 29a, ostirala • 87 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

72/2022 Mozioa, uztailaren 13koa, fauna-istripuen prebentzioaren eta bide-azpiegituretan neurriak hartzearen gainekoa, habitaten zatikatzea murriztu dadin, bereziki A-1 errepidean

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko uztailaren 13an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

72/2022 Mozioa, uztailaren 13koa, fauna-istripuen prebentzioaren eta bide-azpiegituretan neurriak hartzearen gainekoa, habitaten zatikatzea murriztu dadin, bereziki A-1 errepidean.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala fauna-istripuak prebenitzeko bide-segurtasun arloko jarduketekin.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote neurri egokiak gara ditzala, hala badagokio, bide-azpiegituretako elementu osagarriak egokitzeko, besteak beste fauna-igarobideak, habitat-zatikatzeak murriztu daitezen, bereziki A-1 errepidean.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote neurri horiek gauzatzeko beharrezkoa den urteko aurrekontu-kontsignazioa egin dezala.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 13a

Presidentea
PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.07.29 05:24:34 Z